

ANGELUKO IKHASLEAK.  
1997-98ko IKHASURTEA.  
OSOGUNEKO ERAKHASKERA.

HIRUGARREN ERAKHASPENA.

5

I ELHEKETA. ASTE HUNTAKO SOLAS-GAIA.

- 1- Neskatsumak nola zoatzin? Zertako?
- 2- Zer entzuten zituzten Aruen eta Xarrikota?
- 3- Eta mutikoek zer erraiten ziotzaten?

II

**ARUEN GAINDI MERKAZALE**

Duela berrogoi-ta-zonbait urte, ez zen egiteko ttipia hainitzentzat merkaturat heltzea: urrun bizi ziren merkatu hirietarik, eta ez zen orain orain-ko ez autobuzik, ez mobiletarik.

Olhaibin, hasteko, zaldi guti izanez, Maulerat joaitekotz neskatxunak astoz bazabiltzan, astoak hirunazka zoatzila.

Hola gure merkazale gazteak elgarrekin elheka ar zitazken, eta errana den bezala, solasak bidea laburtzen.

Bertzalde, hirunazka, ez ziren hain lotsa Aruen eta Xarrikota-pian gaindi pasatzeko: ezen bi herri hoietako mutikoek laket zuten heien kezkaraztea, borta aintzinetik edo leihotik ateraldi gaixtoak zauzkielarik.

Zonbait aldiz kantuak ere egiten zeizkieten, urrunerat ikusten zizuzteneko:

Trikitin, trikitin, txankü!

Olaibiko kabaleria

horra zaikü

Udüri mehez txakür-üzkü!

Neskatxunek, gehienetan, nahiago zuten erreposturik ez eman, itsusiagoak entzun beldurrez.

Bainan ez ziren ez beti mutu egoiten!

Behin, Mauleko merkatutik etxerakoan, hiru Olhaibiko neskatxun heldu ziren beren astoen ganean.

Gibetik zaldiz hurbildu zitzairen hiru mutiko gazte Arueko.

Hasi ziren beren usaiako trufekin:

—Olahibiko neskak oro buhamisak!

—Olhaibiko neskak oro pastex jaliak!

—Olhaibiko neskak oro müküziak!

Neskatxunek ez adituarena eginik zaldunak heien aintzinerat iragan ziren heien goait egoiteko lehen bihurtunean eta han bidean trebes eman ziren, hola bortxatuko zituztela mintzatzerat.

Eta mutikoen arteko batek, buru-hasturik, alegiazko jendetasun handi batekin, galde hau egin zeien:

—Anderiak, errespetüz nahi deitziet galthatü, Olhaibin astuak ontsa direnetz!

Olhaibi-Gereztei-ko prima begi beltzak zart ihardetsi zion beretik:

—Ez heben bezen ontsa, prefosta: ezi, Olhaibin huñez ebiltzen titzü, eta heben, ikhusten dügün bezala, zaldiz!

zauzkit, zauzkiizu, zauzkiio  
 zauzkiigu, zauzkiizue, zauzkiete

III ADITZ IKASKUNTZA.

31. Zoatzila 32. Ar zitazken  
 33. Zauzkielarik 34. Zeizkieten.

31. JOAN. Indicatif Imparfait.

Ni Niindoan = j'allais

Hi Hiindoan =

Zu Zinoatzin =

Hura Zoan =

Gü Ginoatzin =

Zuek Zinoatzen =

Hek Zoatzin = Ils allaient

32. IZAN. Potentiel Imparfait.

Ni izan ninteken = je pouvais être

Hi " hinteken = tu pouvais être

Zu " zintezken = vous pouviez être

Hura " ziteken = il pouvait être

Gü " gintezken = nous pouvions être

Zuek " zintezketen = vous pouviez être

Hek " zitezken = ils pouvaient être

33. IZAN. Regime indirect.

Indicatif Présent.

Pluriel.

Hek dire (dira) = ils sont

Hek (eux) zauzkit (à moi) = ils me sont

— " — zauzkiizu (à vous) = ils vous sont

— " — zauzkiio (à lui) = ils lui sont

— " — zauzkiigu (à nous) = ils nous sont

— " — zauzkiizue (à vous) = ils vous sont

— " — zauzkiie (à eux) = ils leur sont